

ASTEAZKENA


2017/12/13
5. urtea, 785. zenbakia
107.6 fm
www.ataria.eus
URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

**Jarraipen
zabala izan du
hezkuntza
publikoko
greba egunak**

Hezkuntza publikoko
%75ak egin zuen bat, atzo,
ELA, LAB eta Steilas
sindikatuak deituta // **3**

**Errege Kopako
azken faserako
txartela lortu dute
TAKEko lau kidek**

Delteco GBC klubeko
infantil taldea Kanaria
Handian lehiatuko da // **2**



BECen abestuko duen zortzikotea, ezkerrean Aitor Mendiluzetik hasita. XDZ

Bosgarren finala kantatuko du Aitor Mendiluzek igandean

«Artista, anfitrioi, kantukide ona, exigentea, maisua, diziplinatua, teknikoa, erantzun bizkorrekoa». Gertutik ezagutzen duten bertsolariek Aitor Mendiluzeri gorazarre egin diote, BECeko finalaren atarian // **4-5**

«Joaneko itzulian,
iaz denboraldi
osoan baino
puntu gehiago
lortu ditugu»

**IMANOL CABERO
ENTRENATZAILEA**

Tolosa CF Euskal Ligan
lehen postuan kokatuta
dago; jarritako helburua
betetzen ari da // **7**

zozketak

Atarikideentzat **bi sarrera** ditugu

**EH BERTSOLARI
TXAPELKETA 2017
FINALA**

Abenduak 17, Igandea
11:00 • Bilbo, BECen.

Atarikideentzat **bi sarrera** ditugu

**AZKEN ITZULIA
ANTZEZLANA**

Abenduak 15, ostirala
20:30 • Tolosa,
Leidor aretoan.

Zozketetan parte hartzeko **OSTEGUNA 13:00ak** arte: **943 65 56 95** edo www.ataria.eus



TAKEko lau kideen familia argazkia. ATARIA

TAKE-ko lau kide Kanaria Handira

Errege Kopako azken fasea otsailean lehiatuko da Kanaria Handian; TAKE-ko lau kide bertan izango dira talde handien harrobiak irabazi nahian

Josu Artutxa Tolosa

Delteco GBC klubeko infantil mailako taldeak, otsailaren 13tik 18ra bitarte, Kanaria Handian jokatuko den Errege Kopako azken faserako txartela lortu zuen, atzo, Valentzian. Talde horretan, Tolosako TAKE klubeko lau kide izan dira.

Yon Gonzalez entrenatzaileak, Iñigo Moreno eta Erik Varela laguntzaileak eta Beñat Etxeberria jokalaria osatu dute laukotea. Hauek, Gipuzkoako talde ezberdinetatik joandako beste dozena

bat gaztetxoekin batera, infantil mailako Delteco GBC taldea osatu dute. Lortutakoagatik, Gonzalezek honako hitzak izan ditu ATARIA-rentzat Valentziatik autobusean zetorrela: «Ez genuen inolaz ere espero, lorpen hau sekulako sorpresa izan da. GBC-ren historian, txapelketa honetan lehen aldiz partida bat irabaztea lortu dugu. Klubari ere, eskerrak eman behar dizkiogu, sekulako babes eman digutelako txapelketa osoan zehar». Bat ez, hiru izan baitira irabazi dituzten partidak, eta arerioak gogorrrak aurrean izanda.

Abenduko bost egunetako zuzian, eskualdeko jende ugari elurretara joatea erabaki du. TAKE-ko lau kide hauek, berri, elurretan bezain beste gozatu dute Valentzian jokatu den infantil mailako Errege Kopako lehen fasean. Bertan, Andaluziako Unicaja talde indartsuak, Fuenlabradako Montakit talde deserosoak eta inoiz amorerik ematen ez duen Murtziako UCAM taldeak osatu dute, gipuzkoarrek batera, A multzoa. «Taldee begiratz gero, eta gu geu, multzoen zozketa egin aurretik, ahulenen talde berean geundela ikustean, bagenekien oso zaila izango zela azken fasera sailkatzea. Hala ere, oso gazteak dira eta ezin genien presiorik transmititu», zioen Gonzalezek.

ENDESA LIGAKO NAGUSIENEN PARE

Ostiralean jokatu zituzten multzoko lehen bi partidak, eta horietan, garaipena lortu zuten Yon Gonzalez mutilek, Unicajaren aurka (58-54) eta Fuenlabradako Montakit taldearen aurka (66-49). Larunbatean, berri, UCAM Murtzia arerio zutela, tal-

deak beharrezkoa zuen irabaztea, eta ederki sufritu ondoren, alde txikiagatik, baina 54-50 irabazi zuen Delteco GBC-k. «Hiruretan ere, azken laurdena baino lehen, hamar punturengatik galtzen joan ginen, eta gero? Sekulako indarra erakutsi zuten gazteek», aipatu du entrenatzaile tolosarrak; «prestatzaileen artean hitz egiten aritu ginenean ere, katu batek baino bizitza gehiago izan ditugula aitortu genion elkarri». Hiru garaipen horien ondorioz, fase honetan, multzoko lehen postua lortu du talde gipuzkoarrak, eta horrekin batera, Kanaria Handian jokatuko den azken faserako txartela.

Errege Kopako azken fasea, otsailaren 13tik 18ra bitarte jokatuko da, eta bertan izango dira, besteak beste, Endesa Ligako klub indartsuenen harrobiko taldeak: Real Madril, Bartzelona, Baskonia, Kanaria Handia... Madrildarrek, aurreko urtean txapeldun izateagatik ziurtatu zuten postua; kanariarrek, berri, etxean jokatzen dutelako, auke- ra izango dute onenekin lehiatzeko; eta gainerako sei taldeek (tartean, GBC-k), Valentziako

L'Alqueria Del Basket kiroldegian lortu dute, asteburuan, sailkapena. «Orain bai ez dugula presiorik izango. Bertan, gainera, Ordizia, Easo edota TAKE bezalako klub txikiak jokalariek, Bartzelona, Madril edota Baskonia taldeen aurka aritzeko aukera izango dute. Inoiz ahaztuko ez dugun esperientzia izango da».

ETXEBERRIA, BIKAIN

Zaila izaten da horrelakoetan, taldeko liderra edo izarra nor den aukeratzeko. Izan ere, bi egunetan jokatzen dira partidak, eta denbora gutxi daramate elkarrekin entrenatzen eta jokatzen Gipuzkoako herri ezberdinetatik joan diren gaztetxoek. Hala ere, gipuzkoarren kasuan, Tolosako Beñat Etxeberria pibotaren lana azpimarratu behar da. Etxeberriak, sekulako lana egin du, bai erasoan baita defentsan ere, izan uztaitik gertu edo urruti. Estatistikei begirada bat botaz gero, taldeko onenetako bat bera izan dela esan genezake. «Ez dakit hala den, orain ez dauzkat datuak eskura, baina kantxan behintzat, oso gustura sentitu naiz. Lehen partidari, gainera nuen presioa kendu ahal izan nuen garaipenarekin. Horrela, hurrengo bi partidetan askoz lasaiago sentitu nintzen».

Baina, horrelako txapelketetan, gaztetxoek eta prestatzaileen gainetik, gurasoak egoten dira. Zubi honetan behintzat, gipuzkoarren kasuan, babes handia eta indar izugarria jaso dute harmailetatik. Askotan, emaitzaren arabera, itzulerako bidai pisutsuagoa izaten da, baina kasu honetan, gurasoek ere, haurrek bezainbeste gozatu dute, eta beraia ere bada, zati txiki batean, garaipena. «Sekulako indarra eman digute, asko animatu gaituzte, eta hori ondoren, gure joan eta markagailuari buelta emateko gogoan ikusi ahal izan da. Beraz, eskerrak eman behar dizkiegu, asko zor diegu eta».

Hau guztia, hala ere, ez litza-teke posible izango, hein batean, Tolosan, TAKE-k harrobian egiten duen lana kontuan hartu gabe. Lehen taldeko entrenatzailea den Gonzalezekin batera, Erik Varela eta Iñigo Moreno laguntzaileak, harrobiko taldeetako prestatzaileak direlako. «Beraz, lorpen hau gauzatzeko atzetik egin behar izan duten lan guztia eskertzeko, TAKE nahiz Gipuzkoako Saskibaloi Federazioa osatzen duten talde guztiak zoriontzea besterik ez zaigu geratzen, urte guztian zehar sekulako lana egiten dutelako».



Jarraipen zabala izan du grebak

Hezkuntza publikoko %75ak egin zuen bat, atzo, ELA, LAB eta Steilas sindikatuek deitutako greba orokorrarekin; ikasturte hasieran hasi zituzten mobilizazioak

Rebeka Calvo Tolosa

Hezkuntza publikoko %75ak egin zuen bat ELA, LAB eta Steilas sindikatuek atzorako egindako greba deiarekin. Euskal Herri mailako datua da, baina sindikatuek esan dute Tolosaldean ere antzeko datuak dituztela, eta eskualdean ere jarraipen zabala izan zuela grebak.

Euskal Herri mailan haur eskoletan %90ak egin zuen bat gre-

barekin, hezitzaileen artean %85ak, sukaldari eta garbitzaileen artean %80ak eta irakasleen %75ak. 12:00etan kalera atera ziren Donostian, Bilbon eta Gasteizen manifestazioak egiteko, eta jendetsuak izan ziren oso.

NEGOZIAZIO MAHAIA

ELA, LAB eta Steilas sindikatuek atzoko greba orokorrarekin ematen dute bukatutzat ikasturtearekin hasitako borrokaldia.

Eusko Jaurilaritzak osatutako

negoziazio mahaian ematen diren aurrera pausoen zain geratuko dira orain, eta euren eskakizunei kasurik egin ezean, beste neurri batzuk hartu beharko dituztela esan dute. Azaroan sektorez sektoreko borroka asteak izan zituzten eta horiek ere arrakastatsuak izan ziren, orokorrean.

Atzoko grebak jarraipen zabala izan zuen hortaz, eta esan behar da CCOO eta UGTk ere bat egin zutela greba orokorrarekin.

Begirada bat bakoitzarentzat



Iritzia
Maddi Amiano Allue
Ikaslea

Hamahirugarrenez zuzendu dio irakasleak ikasleari asteburuko pasadizoen idazketa. Bere izena entzun, eta irakaslea mahaitik altxatzera zihola esku umelak mahai azpira sartu ditu bi eskuetako hatz luze eta erakuslea gurutzatuaz. Azken idatzian esku batekoak gurutzatu izanak ez zion eta ezertarako balio izan. Badaki luzea egingo zaiola irakasleak bere mahaitik ikaslearengana egingo duen joana. Horregatik, bien bitartean, azken ertzearaino; nola ez, bere mahairaino iristen den bitartean: «Honakoa berezia izan dadila» ahoskatzen du ahopeka. Bere ikaskideak, di-tuen nahi eta ezinen jakitun egin ez daitezen.

Azken idazketak alegia, badu ahalegin gehigarri bat. Astebururik gozoena ez izanik ere sentitzen zuena islatzea otu zaio eta ikasleari. Mugaz gain aritzera, ausartzera, sentimenduak adieraztera. Erantzuna ordea, to. Hortxe: berak erabilitako tinta urdina baino gorri kolore gehiago duen orria. Hamabi urteko ikasle bat mailakatu duen zenbaki bat, eta sekula ahaztuko ez duen beste esaldi bat: joan dadila espezialistaren batena 'b'-ak eta 'p'-ak bereizi ditzan. Hori ez omen da eta oso normala! Gainera, ez omen naiz normala.

Etsipenez begiratu, eta erretorika entzuten zuen bitartean, ma-

haia marrazturik zuela jabetu da irakaslea. Listo, badu beste ordu erdirako. Irakaslea beragandik urruntzeko desiratzen dago orriari bi ertzetatik heldu, bi zatitan egin, paperezko bolatxo bihurtu eta zarkarretara jaurtitzeko. Gainera badakit, irakasle gelara joango da oraingoan ere bere lana ondo egin duenaren oniritzia jaso nahian. Gaurkoan, adibidez, Dislexia diagnostikatu didala esanez edo. Edozer gauza, auskalo.

Errekreora bidean gerritik heldu eta normala ez, «oso berezia zara» zioen lagunak bazekien zeinen garrantzitsua zen berarentzat aitona. Zenbaterainoko esfortzu egin duen aitonaeren eserlekuan eseri eta hain baliotsua zen idatzia idazten. Bera gogoratzen, eta agurtzen. Aizu...entzun! Nik irakurri dut, eta zoragarri idatzi duzu. Baina tira, akats tiki bat soilik aurkitu diot. Begira begietara, eta entzun iezadazu: lan hori zurea eta zuretzat zenuen egin. Berdin zait irakasleak ez badu atsegin...

Lagunari esker, zera hasi nintzen: benetan maite ninduen maitatzen, eskatzen zidatena ematen, beldurak alboratzen, jendea barkatzen, sinesten nuen jarduten, egia entzuteko prest ez zegoenari gezurra esaten, eta egunero-egunero basoa erdi bete ikusten.

Gainera orain, argi berezi bat ikusten diot neure buruari. Eta egia da, irakasleak arrazoi zuen. Ez da normala, laranja gorrixka edo hori kolorekoa da. Definiezi-na. Bakarra. Ikasgela honetako ikasle bakoitzak duen distira bezalakoxea...

Zuzenketa: abenduaren 8ko astekarian ez zen osorik argitaratu testua. Hemen jatorrizkoa.

Aldundiko bi zuzendari deklaratzera, pisten harira

Berria Arantxa Iraola

Eguzki eta Landarlan taldeek Gipuzkoako Ingurumen Fiskaltzan jarritako salaketen ondorioz dator deklaratzeko deia.

Naturaren kontserbazioan diharduten elkateak batzen dituen Naturkon kolektiboak jakinarazi du Gipuzkoako Foru Aldundiko bi zuzendarik, Obra Hidraulikoetakoak eta Mendietakoak, Tolosako Epaitegian deklaratu beharko dutela gaur, lurren antolamenduaren aurkako delituak egitea egotzita. Hain justu, iaz Aralarren Enirio-

Aralarko Mankomunitateak sustatuta eraiki zen pista baten «arduradunak» izatea leporatzen diete.

Aralarren egiten ari diren pisten harira ugariak dira erakunde naturalista eta kontserbazionisten protestak, eta, hain justu, Eguzki eta Landarlan elkarteek jarritako salaketa baten harira deituko dituzte deklaratzera aldundiko bi arduradunak; Arantxa Ariztimuño eta Felix Asensio. Lehena Mendietako zuzendaria da eta bestea orain Obra Hidraulikoetako zuzendaria bada ere, Ingurumen zuzendari izandakoa.

Naturkoneko ordezkariak prentsa ohar batean adierazi dute lege «debekatuta» dagoela Aralarren pista berriak egitea, eta, gainera, onetsi zuten proiektuak ez zuela betetzen Natura 2000 sareko guneetan indarrean dagoen legedia. Horiek guztiak aintzat hartu gabe, bi zuzendariak beste pista bat zabaltzeko tramitazioa ere abiatu dutela salatu du elkarte naturalisten topaguneak, eta kritika egin du. «Ekintza horiekin bi zuzendari horiek gaitasun eza eta arduragabekeria politikoa ari dira erakusten».

Hilberriak eta urteurrenak



Fermin Aldasoro Begiristain "Praixko"

- Goian bego -

Praixko, makinabat subastao partida jokatu genduan alkarrekin baina renunzio hau ez genduan espero hala ere beti gure artean egongo haiz.

Haitzarri elkarteko hire kuadrilla

ATAUN-AIAN, 2017ko abenduaren 13an



Fermin Aldasoro Begiristain "Praixko"

- Goian bego -

Here negun hil zen 82 urterekin, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

Anaia-arrebak: Jose Mari(t), Martin(t) eta Rufina(t), Juan(apaiza)(t), Jesusa eta Andres; ilobak: Josune eta Josu, Mari Jose eta Maxi, Amaia, Aitor eta Josune; biloba-txikiak: Aritz, Ander, Ainhoa, Joseba, Gorka, Haizea; lehengusuak eta gainerako ahaideak. Familiak, otoitz bat eskatzen dizue bere arimaren alde eta GAUR Asteazkena arratsaldeko SEIETAN Andre Mariaren ikustaldia Parroki Elizan gorpua aurrean dela, egingo den hileta-elizkizunera joateko gonbita egiten dizue. Eskerrik asko aldeztu aurretik.

Helbidea: Praixkone baserria ATAUN-AIAN, 2017ko abenduaren 13an Oharra: Gorpua Beasaingo Goierrri beilatokian egongo da gaur asteazkena 13:30a arte.

ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan
DOAN

ESKELAK •
ataria@ataria.eus •
Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenara
18:30ak arte hartzen ditugu •
Ostegunetan 16:00ak arte
hartzen ditugu

Aitor Mendiluzek bosgarren aldiz kantatuko du Txapelketa Nagusiko finalean eta hautagaietako bat da Sebastian Lizasok jantziko duen txapela lortzeko. Ingurukoek horrela ikusten dute behintzat.

Bermea da bertsoarako

Jon Miranda Irura

Donostiako Belodromoan lehiatu zen azken finala izan zuen Aitor Mendiluzek lehen a, 2001ean. Ordutik BECen 2005ean, 2009an eta 2013an egin diren hirutan kantatu du eta igandean ariko da bosgarrenez. Bitan egin du laugarren eta beste bitan zazpigarren. Iruran bizi den bertsolariak ez du helburua postuan jartzen baino askok ikusten dute txapela lortzeko hautagai bezala. Nerea Ibarzabal, Hernaniko bertso eskolan kide izan duenak «lasai asko» ikusten du buruz burukoan, «eta egun ona badauka gertu-gertu izango du txapela». Txapelketan ez erortzeak duen garrantzia ikusita, Mendiluze balore segurua da markinarraren esanetan. «Jendeak ahaztuta balu bezala, Durangoko finalaurrekoaren ondoren konturatu zen berriro Aitor zeinen ona den».

Agin Laburu ere aritu da Mendiluzeren ondoan aurtengo txapelketa prestatzen: «Zertan ez den artista esanez gero, azkarago bukatuko dugu. Arrazoiak zuzen eta kontundentziaz ematen ditu eta indarra du». Aurtengo Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean Hernaniko bertso eskolan aritzen diren hiru lagunek kantatuko dute: Mendiluzerekin batera, Unai Agirre eta Maialen



Atzo BECen aurkeztu zen Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala eta bertan izan zen Aitor Mendiluze. XDZ

Lujanbiok. Taldearen lorpena ote den galdetuta Laburuk dio, landu dutela «filosofia bat», txapelketari «behar baino garrantzia gehiago ez emateko». Bat dator Hernanira iritsi berria den Ibarzabal: «Buzoa jantzi eta lanera joateko jarrera dute. Bertsoa egiteari ematen diote inportantzia eta plaza garrantzitsu batean bezala kantatzen dute txapelketan baina ahaztu gabe beste plaza bat gehiago dela».

Hezkuntza arautuan, bertsolaritza irakasten aritzen da Mendi-

luze eta baita Ibarzabal ere. Haren eskutik egin zuen bizkaitarrak Hernaniko bertso eskolara bidea: «Ni ez nintzatekeen inoiz ausartuko euren joaten Aitorren insistentziagatik ez bultz. Irakasleen arteko bilera batean elkartu eta berak luzatu zidan gonbita. Oso eskertuta nago». Taldea egiteko dohaina ere badu Iruran bizi den bertsolariak eta Laburuk nabarmendu du, askotan, berak jartzen duela taldean diziplina.

Oihana Iguaran amasarraren iritziz, «jarreraz ere, Mendiluzek hartzen du anfitrioia papera eta besteekiko laguntzeko posturari jartzen da. Kantukide ona da eta ez duzu inor entzungo kontrakoa esaten». Aurtengo Bertsolari Txapelketa Nagusian finalaurrekoen bi saioetan elkarrekin aritzea tokatu zaie biei, Durangon eta Iruñean: «Bertsolari bezala exijentea da, erritmo bat jarri eta bide batzuk markatzen dizkizu. Diskurtsiboki elementuak gehitzen dizkizu beti, eta uzten dizkizu zirrikituak. Erantzuten badizu ere ez zaitu sekula etzanda uzten». Maisua

da bertsoan eta horrela ikusten du Mikel Artola Gipuzkoako Bertsotale Elkartearen eragileak. «Eredu da bertsoan egin nahi duen edonorentzat eta eskualdeko erreferente batek egunerokotasunean ere lanerako prestutasuna agertzen badu, ezin da gehiago eskatu».

Bertsotan ari dela azkar erabakitzeko gaitasuna nabarmendu dio Artolak Mendiluzeri, «eta gero, erabaki duena dotore esateko gaitasuna du». Harituz bertsozaleen elkargunean begiratzeko diote bere bertsoerari eta Iguaranek azpimarratu duenez, «exekuzioan maisu bat da, goitik behera ekartzen baitu hizketa molde ikaragarri naturala baina aldi berean sakona. Badaki umorez egiten baina serio ere bai». Bertsoa egiteko «robot» bezala hartu izan dute askok Mendiluze eta hitz hori bera erabili du Ibarzabalek: «Akaso ez da egokiena, denak garelako pertsonak, baina Aitorren kasuan miresten dut izugarri, ni sekula izango ez naizen bertsolaria delako. Diziplinatua da, erantzun bizkorra du, ikusgarria da puntu erantzune-

tan, ez da inoiz jausten, ondo kantatzen du, puntu motzak nola lotzen dituen ikusi besterik ez dago. Espektakulu hutsa da». Gaiak, hitzak eta ikuspegiak «disekzionatzeko» duen abildadea nabarmendu dio Iguaranek.

ANDOAINDIK IRURARA

Ados dago esandako guztiarekin Jokin Sorozabal andoaindarra. Herrikidea du Mendiluze eta gaztetatik ezagutzen du oholtza gainean. «Erraztasun handikoa da, ez da igual derrepente jendea algaraka jarriko duena eta hurrengoan bat ere balio ez duen bertsoa kantatuko duena. Erre-

«Beti uzten dizkizu zirrikituak, erantzuten badizu ere ez zaitu sekula etzanda uzten»

OIHANA IGUARAN
HARITUZ ELKARGUNEA

«Zertan ez den artista esanez gero lehenago bukatuko dugu. Arrazoiak zuzen eta indarrez ematen ditu»

AGIN LABURU
HERNANIKO BERTSO ESKOLA

«Erreferente batek egunerakotasunean lanerako prestutasuna agertutzen badu, ezin da gehiago eskatu»

MIKEL ARTOLA
GIPUZKOAKO ELKARTEA

gularra eta konstantea da. Garrantia hitza etortzen zait burura Aitorrekin gogoratuta». Bertso barrua betetzeko garaian duen «erraztasuna» ere aitortu dio Sorozabalek herrikideari, «bertsoa menperatzen du eta teknikoki ona da, gu baino koska bat gora-gogo dago».

Orexan bizi den andoaindarra ere probatua dago txapelketetan, baina bere garaian bertsolarien artean orain baino alde handiagoak zeudela dio: «Gu ibiltzen ginen garaian, Lizaso, Peñagarikano, Iturriaga, Sarasua... aritzen ginen eta Egaña beti zen faborito, aldea ateratzen

BERTAKO PRODUKTUAK
SALTZEN DITUGU



ERRAZKIN
ARTOLA
harategia

EUSKAL HERRIA KALEA 53, IBARRA

TFNO 943 24 94 29

«Ni ez nintzatekeen inoiz eurena joaten ausartuko Aitorren insistentziagatik izan ez balitz»»

NEREA IBARZABAL
HERNANIKO BERTSO ESKOLA

«Suerterik onena opa diot eta presiorik sartu nahi ez badiot ere, ahal dela txapela Irurara ekar dezala»

ANA LEUNDA
IRURAKO ALKATEA

«Erregularra eta konstantea da. Garantia bat. Bertsoa menperatzen du eta teknikoki ona da»

JOKIN SOROZABAL
HERRIKIDE ETA BERTSOLARIA

zigun». Aurtengo finala, ordea, inoiz baino irekiagoa ikusten du Sorozabalek. «Aurten ikusi ditut denak saio oso on bat egiten eta bestea ez hain ona. Hortaz, Aitor lasai-lasai ikusten dut txapela lortzeko hautagaien artean».

Andoainen, *Sorozabaletik Mendiluzera* ekimenarekin bi bertsolariak omendu zituzten 2014ko apirilean eta askotan egin dute bat euren jaioterriko ekitaldietan, nahiz eta Mendiluze aspaldiko urteetan Iruran bizi den. «Suerterik onena opa diot eta posible baldin bada txapela Irurara ekartzea», esan du Ana Leunda alkateak. «Ez diot presiorik sartu nahi baina asko poz-tuko liguke Aitorren garaipenak». Era horretara, aurretik aterata dauzkan Gipuzkoako bi txapelei –1995 eta 2007– gehitu lieke Euskal Herrikoa. Leundak ere gustura hartuko luke herrian: «Aurretik Xabi Artola irurarrak Euskal Herriko Dantza-Txapelketatik bi ekarrita dauzka eta Lore Amenabar soinu jotzailak ere hirugarren postua lortu berri du Arrasateko Nazioarteko Akordeoi Lehiaketan».

BTN17-KO FINALISTAK

Amets Arzallus

(Hendaia, 1983). Txikitatik hasi zen kantuan. Lau aldiz irabazi du Nafarroako Bertsolari Txapelketa eta hirutan Xilaba. 2013ko Euskal Herriko txapelduna da.

Maialen Lujanbio

(Hernani, 1976). 2003an Gipuzkoako Txapelketa irabazi zuen eta 2009an Txapelketa Nagusia. Sei-argarren parte hartzea du eta sei finaletan kantatu du.

Igor Elortza

(Durango, 1975). Umetan ikasi zuen bertsotan. Bost aldiz irabazi du Bizkaiko Txapelketa. Zazpigarren parte hartzea du Txapelketa Nagusian eta lau finaletan kantatu du.

Sustrai Colina

(Urruña, 1982). Hendaiaiko bertso eskolan egin zituen lehen urratsak. Bi aldiz irabazi du Xilaba txapelketa. Txapelketa Nagusian parte hartu duen bost alditan iritsi da finalera.

Aitor Sarriegi

(Beasain, 1976). Lehen plaza 1989an egin zuen. Lizardi eta Osinalde sariketak irabazi ditu eta 2011n Gipuzkoako txapela jantzi zuen. Hiru finaletan kantatu du.

B. Gaztelumendi

(Añorga, 1987). 2015eko Gipuzkoako Bertsolari txapelketa irabazita, egungo txapelduna da. Hirugarren aldiz hartu du parte Txapelketa Nagusian eta bigarren finala du.

Unai Agirre

(Hernani, 1975). Hamar urterekin hasi zen bertsotan, ikastolan. Lizardi eta Orixe sariketak irabaziak ditu. Bosgarren aldiz kantatu du Txapelketa Nagusian eta lehen finala du.



«Nire burua arin sentitu nahi nuke eta ez lotuta; freskotasun pixka batekin eta eroso»»

AITOR MENDILUZE
BERTSOLARIA

J.M. Irura

Igandeko eguna iristeko gogoz dagoela dio Aitor Mendiluzek (Andoain, 1975). Normal pasako du astea, lanean, *Gu ere bertso-tan* ekimenaren barruan, ikaste-txeetan bertsolaritza irakasten. Bere ikasleen, Irurako herrikideen eta ingurukoen animoa jaso du azken egunotan.

Azkeneko aste hau nola bizi-ko duzu? Bilduko zara bertso eskolakoekin?

Bildu, bai, bilduko naiz. Prestakuntzarik ez dugu ezer handirik egingo, juntatu, egon eta hitz egin, girotu azken batean. Ni tentsio puntu batekin nago, baina nahikoa lasai. Gainerakoan irakurri, gauza batzuk buruan edukiko ditut. Egin beharreko lanak eginda daude, eta eguna iritsi eta zer emateko gai garen ikusteko gogoz nago.

Bosgarren finala duzu. Helburu bezala jarrita zeneukan BECera iristea?

Ez. Ez dut inoiz postuetan helbururik jartzen. Gustatzen zait pentsatzea hori baino anbiziotsuagoa naizela eta gehiago jartzen dudala helburua emaitzetan, postuan baino. Kezkatzen naue-na da bertsotan egiteko gai izatea, zerbait eman ahal izatea, jakinda hori eginez gero aukerak beti daudela.

Nola egin nahi zenuke bertso-tan BECen?

Ahal bada ondo. Gero ez dakit zer egingo dugun. Durangon izan nituen sentsazioekin jardun nahi nuke, nire burua arin sentitu nahi dut eta ez lotuta. Gauzak bere tokian jarri ezinik zabiltzanean sentitzen duzun ezin hori ekidin eta freskotasun pixka batekin aritu nahi nuke. Batez ere, eroso.

Saio luzea da, exijentea bertsolarientzat.

Neurri batean kontzentratzen eta deskontzentratzen asmatzea da kontua. Ezin dituzu zortzi ordu pasa saioa ehuneko ehunetan bizitzen eta momentu batzuetan abstrakzio gaitasuna ere behar duzu. Ariketa batetik bestera denbora dezente pasako zaitzula kontuan hartuta, zure burua lasaitzeko baliatu behar duzu tarte hori. Klabe garrantzitsua da hori. Gero fisikoki gogorra izaten da, eta bizkarreko minnez bukatuko dugu, baina tira, tamainari eustea da inportantea. **Ariketaren bat gustuko duzu?** Final polita da ariketei begiratu-ta ere. Txapelketan ez da esperimentu arraro gehiegi izaten eta hori eskertzen dugun gauzetako bat da, ez ibili behar izatea soka baten gainean ariketa tekniko

hutsalak egiten eta aukera izatea kontatzeko, kantatzeko eta gozatzeko. Ariketek aukera hori ematen dute, norberak bere burua probatu ahal izateko eta monotonia apurtzeko. Aniztasun hori eskertzen da.

Unai Agirre aurten ondoan izango duzu. Zer opa diozu?

Finalean neu sartzea bezainbesteko edo gehiagoko poza eman zidan bera sartzea. Iruñean Unaiena denontzat sorpresa bat izan zen, beragandik hasita. Gure artean ere ikusten genuen ondo ari zela eta sekulako poza hartu genuen sartu zenean. Neurri batean, neurri buruari opa diodan berdina opa diot: bertsotan egin dezala, goza dezala plaza horretan eta gozarazi dela plaza hori. Gai da, gauza oso politak eskainiko ditu eta kolore berezia emango dio finalari. Izan dezala horretarako aukera eta aprobe-txa dezala.

Bere ondoan nahiko zenuke?

Ondoan egongo gara gauden postuan gaudela ere. Egunak momentu ezberdin asko eman-go ditu. Ondoan eseriko bagina ederki baina beste edozein kide-ekin gustura egongo naiz.

Nola prestatu duzu igandeko eguna. Zer espero duzu?

Bezperatik etorriko gara BECera. Bilbon badut beste zeregin txiki bat eta lasaigo ibiliko gara gaua bertan pasata. Jendeak gertu bizi du eta gertu sentitzen dugu guk ere jendea. Ikasleek, inguruko jendeak animoak eman dizkit egunotan. Azken batean, zabal-tzen da halako ilusio orokor bat final ona izan dadin, bakoitzak bere faborittoa izateaz gainera. Horrek eragiten du denak ere animatzea: guk elkar, guk gure burua eta inguruak gu denok.



Zortzi finalistak atzoko aurkezpenean Barakaldoko BECen. XDZ

Berezi

NEURRI BEREZIAK
Gazte eta emakumeentzako moda

44-64
neurriak

www.berezitallasespeciales.com

Errementari kalea, 3 , Tolosa / Tel.: 943 674 965

berezitallasespeciales f

ZORIONAK JOSTUNEI

Larrunarri berritzeko lanak gaur hasiko dira

Zazpi edo zortzi asteko lana izango dela aurreikusi du udalak; bitartean karpa egongo da, herritarrek «aterpea» izan dezaten

Erredakzioa Amezketa

Gaur hasiko dira Amezketako Larrunarri pilotalekua berritzen. Zazpi edo zortzi aste iraungo dute lanek eta Gasteizko Indenort PV SL. enpresak egingo ditu; 314.542,51 euroko (BEZ barne) aurrekontua izango du.

Amezketako Udalak Larrunarri pilotalekua erabat ixtea erabaki du obraren zuzendaritzarekin batera, egin beharreko lanak ikusi (harmailak berritu, instalazio elektrikoa berritu, frontoiko paretak berriro pintatu....) eta herritarren segurtasuna «bermatzeko» asmoz.

Gaztelekuko ekintzak haurtzaindegi zaharrean egingo dituzte; frontoiko ohiko jarduerak, entrenamenduak eta partidak, berri, herriko beste pilotalekue-tan. Udalak jakinarazi duenez,



Herriko plazan jarri dute karpa, lanek irauten duten bitartean. N.R.A.

frontoi ondoko eremu batzuk erreserbatu egin dituzte enpresaren ibilgailuentzako eta material eta hondakinak pilatzeko.

Udalak nabarmendu du, hala-

ber, herriko plazan karpa bat jarri dutela herritarrek aterpe bat izan dezaten, eta «pazientzia» eskatu diete herritarrei, «lanek mereziko dutelako».



EUSKAL SELEKZIOAREKIN

Tolosako Euskal Ligako Patricia Larrarte, Izarne Sarasola, Maria Martija eta Irene Etxaburua jokalariek 18 eta 16 urte azpiko Euskal selekzioarekin jokatu dute Espainiako txapelketan. ATARIA



IGUARANEK KENDU DIO TXAPELA 'MENDI'-RI

III. Mallabiako bertsolari txapelketa Beñat Iguaranentzat izan da. Aurreko bi urteetan Unai Mendizabal izan da garaile, aurtentz laugar. Unai Mendizabal, Txaber Altube, Jon Gurrutxaga eta Beñat Iguaran. Ordena horretan entzun ziren izenak sari banaketan, atzekoz aurrera, Mallabiako Herrikoan bertako III. finala jokatu ostean. Bertso onenak gaurko (H)ari naizelan.

Beriain mendira igoko dira igandean Aizkardi taldekoak

AMASA-VILLABONA // Datorren iganderako irteera bat antolatu dugu Nafarroara. Igandean, 07:30ean abiatuko gara Olaederri kiroldegitik. Izena emateko, telefono honetara deitu beharko da: 649 71 71 82. Iluntzeko 20:00etatik 22:00etara edo Aizkardi aretoan ostegunean ordu-tegi berdinean. Uharte Arakiletik abiatuko dira (425 m) eta Beriainera (1.493 m) igo ondoren, Irañetako jatsiko dira.

Boluntarioak behar dira Elikagai Bankuko loteak prestatzeko

ZIZURKIL // Abenduaren 15ean, ostiralean, elkartuko dira boluntarioak 9:30etik 12:30era bitartean eta 15:00etatik 17:00etara, bildutako elikagaiekin loteak prestatzeko, Ernio Bidea 29 A helbidean, Talleres Amondarainen ondoan. Beharrean diren herriko familiei laguntzeko loteak prestatzen lagundu nahi dutenek Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatera deitu behar dute izena emateko: 943693930.

2018ko
mahai egutegiak
eskuragarri.

Pasa zaitezte
hauen bila hilaren
18tik aurrera.

San Esteban, 20 Tolosa 20400



Hemen zure iragarkia
joan daiteke

publi@ataria.eus
661 67 88 18



JOSU ARTUTXA

«Ikusi dugu gai garela edozein talderen aurka jokatzeko»

IMANOL CABERO EUSKAL LIGAKO ENTRENATZAILEA

Tolosako Euskal Ligako jokalaria sekulako denboraldia jokatzen ari dira. Ez dute partidarik galdu oraingoz eta lehen postuan amaitu dute lehen itzulia.

Asier Imaz–Ane Urkola Tolosa

Liga hasitakoan ez zuen inondik ere espero bere taldeak horrela lehen itzulia egingo zuenik. Lehengo urtean ligari eusteko borrokan ibili ziren; aurren, berriz, iazko helburuak bete dituzte lehen itzulia amaitzerako. Imanol Cabero (1994, Anoeta) entrenatzailearekin errepasatu dugu denboraldiko lehen itzulia.

Oso gustura denboraldiko lehen itzuliarekin, ezta?

Bai, bai oso pozik. Helburutzat jarri genuen aurreko urteko emaitzak hobetzea. Lehenengo itzulia bukatuta, iazko denboraldi osoan lortutako puntuak baino gehiago lortu ditugu. Beraz, dagoeneko oso pozik gaude.

Maila mantentzea zen lehen helburua?

Bai, hori da. Hasiera ez genituen

beste taldeak ezagutzen. Orduan, gure helburua gure marka hobetzea zen. Ikusita orain zein postutan gauden, oso pozik gaude.

Burutik pasa al zitzaizuen egoera honetan egongo zinenik?

Neure burutik behintzat ez. Iaz, lehenengo postutan zeuden taldeen kontra jokatzen genuen aldiro, sekulako gol pila sartzen zizkiguten. Orain gure taldea ikusita, uste dut oso ondo moldatu garela eta taldea oso ona da.

Azter dezagun denboraldia. Bost partida irabazi zenituzten jarraian. Ez irabazi bakarrik: markagailuek arreta ematen dute: 3-1, 5-1, 3-0... Orduan hasi zinate sinesten zertan ari zinate?

Taldearekin ondo eta libreago dagoela esango nuke jende berria dagoelako. Hasieran oso erraz

hasi ginen partidak irabazten, eta pentsatu genuen lehenengo postuetan zeuden taldeen kontra jokatzen hasten ginenean bukatuko zela gure bolada ona. Berdindu egin genuen beraien kontra eta hor ikusi genuen goiko postuetan egon gintezkeela. Lehen itzulia amaituta, ikusi dugu gai garela edozeinen aurka jokatzeko. Oraindik asko falta da denboraldia amaitzeko eta zaila izango da lehen postuetan mantentzea, baina ikusi dugu gai garela hor egoteko.

Hainbat partida berdindu ondoren, berriz ere bolada onari heldu zenioten. Gero, berriz ere berdinketak iritsi ziren, eta beste taldeek tartea jan zizuten.

Bai, horrela da. Arratia eta Bizkarre taldeen aurka jokatu genuen segidan. Arratiaren aurka berdindu egin genuen: galtzeko aukerak izan genituen baina baita irabazteko ere. Orduan ikusi genuen talde ona daukagula onen kontra jokatuta ere. Gero, Derioren aurka jokatu genuen Berazubini, sailkapenaren behar aldean dagoen taldearen kontra, eta berdindu egin genuen. Bost puntuko tartea izatera iritsi ginen. Berriz ere irabazten hasi gara orain, baina gero eta gehiago kostatzen zaigu. Beste ekipoei ezagutu egiten gaituzte eta lehenengo postuan gaudenez, beste modu batera etortzen dira Usabalera. Gehiago kostatzen ari zaigu, baina aurrera egiten ari gara.

Kontziente al zara lehenengo itzulian ez duzuela partidarik galdu?

Hain «azkar» eta hain «erraz» irabazten ari gara, asko sufritu gabe, nik uste dut taldea ere ez baita kontziente zer lortzen ari garen. Hala ere, jakitun gara egunen batean galdu egingo dugula. **Hasieran aipatutako helburuak bete dituzue. Orduan orain zer? Zein helburu dituzue?**

Ez dugu epe luzera begiratzen; pixkanaka-pixkanaka egingo dugu aurrera, lasaitasun handiz. Aurrean daukaguna begiratzen hasten garenean galtzen dugu energia, eta hor hasten gara akatsak egiten. Pixkanaka-pixkanaka koskak igo behar ditugu, ea gai garen azken jardunaldiarte lehenengo postuetan egoteko.

Hiru talde zaudete pixka bat alde egin da: Arratia puntu batera eta Bizkarre bi puntura dituzue. Jardunaldi batek edozer gauza alda dezake, ordea.

Hori da guk hitz egiten duguna. Azken finean, lider egotea oso

zirkunstantziala da. Ziur gaude denboraldian egongo garela bigarren postuan, hirugarrenean... Helburua lehen postuetatik gertu jarraitzea da, ligaren amaiera ilusioarekin iristeko.

Zeintzuk dira Euskal Ligako sariak?

Lehenengo postuan amaitzen duen taldea soilik igotzen da bigarren mailara. Besteek ezer ez...

Maila horretan geratuta ere, urte izugarria izango da. Itzulerako partidak giltza izango dira, ezta?

Bai, ea urtarrilean eta otsailean nola hasten garen hiru taldeak, gure arteko partidetan zer gertatzen den... Bizkarreraren kontra inauterien ondoren jokatzen dugu, eta hori arriskutsua izango da [kar, kar kar]. Ea zer gertatzen den.

Azpimarragarria da bigarren mailak ere zer esan nahi duen, ezta?

Hori da. Nesketan, gure azpitik maila bakarra dago, herrialde mailakoa, Gipuzkoako taldeek osatzen dutena. Gu Euskal Ligan gaude, eta hortik bigarren mailara igoko ginateke. Bigarren maila ez da liga bakarra, zortzi multzo daude bertan.

Taldeari begiratuta, zein diferentzia egon dira aurren?

Aurren 21 pertsonak osatzen dute taldea. 21 taldekideetatik lauk edo bostek utzi zuten iaz. Bi igo dira kadete mailatik, eta hiru jubentzetatik. Taldekide batek iaz Gasteizko talde batean jokatu zuen bigarren mailan, eta aurren bueltatu egin da.

Maddi Garikano, ezta? Bere esperientziak ere markatu zuen Tolosaren ibilbidea. Aurrelari bikaina da.

Bai, sekulako esperientzia dauka. Bigarren mailan jokatu du eta partida zailetan asko laguntzen du. Etorri diren gazte horiek kadeteetatik datoz, baina sekulako egurra daukate.

Sekulako harrobia daukazue.

Bai, hori da garrantzitsua. Badakit talde batzuk Barakaldotik eta beste hainbat taldekideetatik fitxatzen ari direla futbolariak. Hemen taldekide guztiak Tolosaldekoak dira: txikitatik egiten dugun lan, entrenamenduak serio egiten ditugu eta nesken taldeak forma hartzen ari dira.

Horrek arriskua du: jokalariai beste taldeetara joatea.

Realak dagoeneko esan du bigarren taldea ateratzeko asmoa daukala eta taldeko lau edo bost jokalaria beraiekin entrenatzen ari dira. Ez dago besterik. Orain momentuaz disfrutatzea tokatzen da; etorri beharrekoak etorriko dira.



ASTEAZKENA, 2017KO ABENDUAK 13
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Naiara Roldan de Aranguiz
Kudeatzailea: Iban Urdapileta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **902 82 02 01**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Edoain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Sariz beteta azalduko dira Tolosako&Co elkarteko denden erakuslehiak. ATARIA

Hamar aginaldo kaxa zozketagai

Tolosa&Co elkarteak sariz betetako eguberriak espero ditu, herriko dendetan erosteak saria eskar dezake, beste behin

Erredakzioa Tolosa

Hilabete hasieran hasita eta abenduaren 21era bitartean Tolosa&Co dendetan elkarteko Visa txartelarekin ordaintzen dutenen artean eguberrietako hamar saski zozkatuko dituzte. Tolosa&Co dendetan saltzen diren produktuekin osatutako kaxa horiek, Tolosako hamar erakuslehotan ikusi ahal izango dira.

PREZIO JUXTUA KANPAINA

Bestalde Tolosa&Co-k gabonei begira beste kanpaina bat martxan jarri du. Abenduaren 7tik urtarrilaren 7ra Tolosa&Co dendetan erosten dutenei boleto berezi bat emango diete, bertan bere datuak eta erakuslehiok dauden produktu guztien balio totala jartzeko. Bezeroek komertzioan jarriko duten kaxan utzi dezakete boletoa, edo baita erakuslehiok bertan dagoen bu-

zoian ere. Erakuslehiok Triangulo plazan dago.

Irabazlea izango da preziora gehien hurbiltzen dena, eta erakuslehiok dauden produktu guztiak eskuratuko ditu. Urtarrilaren 13an egingo dute sari banaketa, erakuslehiok bertan.

Horretaz gain, preziora gehien hurbildu diren hurrengo hiru pertsonen 200 euroko txekoa emango zaien Tolosa&Co-k dendetan gastatzeko.

ASTEAZKENA 13

AGENDA

Deialdiak

Amasa-Villabona. Seve Iglesiasen erakusketa. *Paisaia, erretratuak eta pintura abstraktua.* Asteleheneretik ostiralera: 18:00-20:30. Larunbatetan: 10:30-13:00.

Ibarra. Ibarratik Misio Taldeak antolatzen duen Merkatu Txikia abenduaren 10etik 17ra irekiko dute eta jasotzen duten dirua Ekuador, Honduras eta Indian abian dituzten proiektuetara bideratuko dute. (Gauzak eramateko epea, hilak 9: 17:00etatik 20:30ak arte jasotzen dituzte plazan bertan dagoen parrokiako lokalean).

Ikaztegieta. Ipuin kontalariak haur guztiei zuzendutako saioa egingo du. 17:15ean, liburutegian.

ATARIA IRRATIA

09:00-11:00. Pasahitza. Eskualdeko berriak, Iker Ibarluzearekin eguraldia, Oskar Tenarekin artearen txokoa, Saioa Etxegia *Kale Kantotik*, Tolosaldea Garatzenen atala eta Joseba Landa Bartzelonatik.

11:00-12:00. Eutsi goiari. Kirol albisteak.

12:00-13:00. Entzuteko Jaioak. Musika saioa.

15:00. Playback Ataria. Adrianna Gaultier Djaren musika saioa.

16:00-18:00. Zebrabidea. Arrosa Sarearen magazina.

18:00-20:00. Goizeko saioek utzitako onena.

20:00. (H)ari naizela. Imanol Artola *felixek* gidatutako bertso saioa.

28 KANALA

12:30. Elkarriketa Xabier Zabala musikagilea.

13:30. Gaurkoan Tolosaldetik.

17:30. Gaurkoan Tolosaldetik.

21:30. Gaurkoan Tolosaldetik.

22:00. Ikusi Irratia.

23:30. Gaurkoan Tolosaldetik.

+ FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa.

Olarreaga Aranburu. I. Korreo kalea, 2.

Telefona: 943 670128.

Gauekoa. Morant Barber, R.

Zabalarreta lorategiak, 1.

Telefona: 943 673849.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Orduak aurrera egin ahala, hego haizeak indarra hartuko du, egunaren lehen zatian eguraldi nahiko lasaia izango dugu, hodei asko izango dugu zerruan baina baita ostarteak ere. Aterik mantenduko da zerua, nahiz eta zaparrada txikiren bat edo beste botako duenik ezin dugun baztertu. Arratsaldeko lehen orduetik aurrera fronte bat gerturatuko denean, zerua erabat estaliko zaigu. Gau partean, gauaren lehen zatirako euri zaparradak sarriago botako ditu, martxoak botako ditu eta egunaren bigarren zatian litrozkaren bat pilatuko da, erdi mailako geruzetan aire dezentez epelagoa sartuko zaigu, tenperaturak ere gora egingo du, eguneko erdiko orduetan 11-12 eta punturen batean 13 gradu ere harriatuko dituzte, epelagoak izango dira eta alde horretatik eguraldi eramangarriagoa izango da.

Bihar. Eguraldi kaxkarra izango dugu, egun osoan zehar mendebaleko haizea ibiliko zaigu. Egunaren bigarren zatian eta iluntze parterako ipar-mendebaldetik, iuntzerako hego-mendebaldeko ukituarekin. Zakar ibiliko zaigu egun osoan zehar, batez ere mendi inguruetan eta haize guneetan. Horrekin eta erdi mailako geruzetan aire epela daukagunez, beheko geruzetan eguneko erdiko orduetan tenperatura nahiko epelak izango dira. 14-15 gradu harrapatuko dituzte eguneko erdiko orduetan, ez du hotzik egingo baina zerua erabat estalita mantenduko zaigu eta zaparradak nahiko sarri botako ditu, goiz partean. Arratsaldeko lehen orduan zertxobait gutxi eago edo gau partean berriro ere aktibatu egingo zaizkigu zaparrada horiek, beraz eguraldi ezatsegina izango dugu.

TOLOSALDEKO ATARIA-k ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ZORION AGURRAK

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95
ataria@ataria.eus
San Esteban 20
Tolosa

www.ataria.eus · 107.6 fm · 105.0 fm